

Asisko gutuna

2011ko abendua. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

38. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sareko lau printzipioak, Asisko Frantziskoren bizitzan erreferentzia hartzen duen espiritualitatera hurbiltzeko esperientzia batzuk dira. Urtearen azken hil honetan, bigarren printzipioa hartzen dugu esku artean: “Eguneroko bizitza, barnerantz: apaltasuna”. Itxurazalea ez den apaltasuna bizitzeak berekin du gure izate mugatuaren onarpena bizitzak eta

elkarrekin bizitzeak dituen zailtasunak lantzeko, eta beharrezko oinarria da itxaropenaren espiritualitatera geure burua irekitzeko.

Mugatasuna eta itxaropena elkarrekin lotzen dira Kyrie eleison adierazpenaren apaltasunean, batik bat gutun honetako gogoetak aztertu eta laburbildu duen “Kyrie eleison” giza oihu horretan.

Gogoetarako gaia

Kyrie eleison

Kyrie eleison aspaldiko esaldia da, jada ia ahaztua. Gure kulturen zehar esaldi honekin musika harrigarriak konposatu dira, gizakiaren larriaz eta itxaropenaz mintza zaizkigun musikak. Kyrie eleison, “erruki zakizkit, Jauna”, eskari etengabea izan da kristau artean mendeetan zehar. Nahiz eta gaur arrotz egiten zaigun, zerikusia du Jainkoarekin harremanean den giza izatearekin.

Erruki zakizkit hori oihu bat da, eta gure txikitasunaz eta nahigabeaz mintzo da, gure sufrimenduaz eta gure bekatuaz, gure errealitateaz. Geure izatearen sakonenetik, geure mugatasun absolutuaz kontziente izatetik, sortzen da oihu hori laguntza eske: Kyrie eleison.

“Erruki zakizkit, Jauna” hori Biblian zehar asko errepikatzen den eskaria da. “Erruki zakizkit” esaten diote Jesusi bidean dauden pertsonak, sufrimenduan daudenek eta Jesusengan itxaropena daukatenek: itsuek, hamar lepradunek, bere alaba sendatzea eskatzen dion emakume kanaandarrak. “Erruki

zakizkit, Jauna” eskatzen dio zergalariak otoitz zintzoz, eta Jainkoak entzun egiten dio.

Errukia eduki eta errukia behar izan, bekatari sentitu, gero eta arrotzagoak egiten zaizkigun hitzak dira, baina esanahi osoa izaten jarraitzen dute. Jainkoaren bila ibiltzea eta errotikako mugatasuna sentitzea gure bihotz irrikatsuen isiltasunean aurkitzen dira, eta hor elkartzen dira erregua eta itxaropena.

“Erruki zakizkit, Jauna” Jainkoari zuzendutako eskaria da. Eskatzen duenak erantzuna espero du, kontsolamendua nahi du. Kyrie eleison larri dagoenaren eta Jainkoagan konfiantza duenaren oihua da. Salmogileak honela dio: “Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz; suntsitu nire hobena, zeure neurrigabeko gupidaz”.

Geure barren barrerarik Hitzarengana urreratuz, geure bihotzak atsedean hartzen duen tokia aurkitzen dugu. Egarriz dugun bihotzetik entzun dezakegu, otoitzaren isiltasunean, Jainkoaren presentzia, Kristoren errukia eta gupida.

Ebanjelioko pasartea: Mt 15,21-29

Handik irtenik, Tiro eta Sidon aldera aldentu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: –Erruki zakizkit, Jauna, Daviden Semea! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba.

Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Bere ikasleek, ondoraturik, eskatu zioten: –Kasu egiozu, deiadarka baitatorkigu atzetik.

Jesusek, ordea: –Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak.

Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri

zitzaion, esanez: –Lagun nazazu, Jauna.

Jesusek, orduan: –Ez dago ongi seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea.

Emakumeak erantzun zion: –Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak.

Orduan, Jesusek esan zion: –Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzuna!

Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba. Handik atera eta Galileako aintzira-bazterreara joan zen Jesus. Mendira igo zen eta eseri.

Frantziskotar espiritualtasuna

Kyrie, Domine, Señor edo Jauna, grekoz, latinez, gaztelaniaz edo euskaraz esanda, garrantzitsua eta erabakigarria zera da: gure alde dugula jakitea gizon-emakumei agertu zaiena eta Jaun eta Harkaitz sendo duguna, Berarengan bizitzeko, arnasa hartzeko, maitatzeko, bide egiteko eta bizitza konfiantzan finkatzeko.

Hori izan zen batik bat Asisko Frantziskoren esperientzia. Bere bila ibiltze irrikatsuetan eta lorik gabeko gauetan, bere bizitzako Jaunarekin egin zuen topo. "Frantzisko, nork ekar diezazuke onura handiagoa, jaunak ala morroiak? entzun zuen Frantziskok sagu eta bilaketa artean emandako gau horietako batean. Eta harrezkero gaua egun bihurtu zitzaion, eta bihotz-bihotzez, konfiantza osoz, indar guztiz utzi zuen bere burua Jaunaren eskuetan.

Bere Jauna, Jainko goi-goikoa, ezagutzea, maitatzea eta kantatzea izan zuen izateko eta bizitzeko arrazoi. "Gorets ezazue eta goraipe Jauna, Goi-goikoa eta on gorena, Jainko Goi-goikoa", hori izan zen Frantziskok etengabe kantatu zuen errepika; eta hori da gaur uzten digun esperientzia, Jaunaren (Kyrie) erruki eta onginahian bilduak senti gaitezen.

Otoitza: Jaunaren Nekaldiko Ofizioa. 3. Salmoa

Erruki nitaz, ene Jainko, erruki nitaz,
zuregan dut konfiantza eta.

Zure hegalean itzalpean itxarongo dut,
gaitzaldia igaro artean.

Goi-goiko Aita txit santuari egingo diot dei,
ongile izan dudana Jaunari.

Jainkoak bere maitasun eta leialtasuna bidali zizkidan,
askatu egin ninduen etsai indartsuengandik
eta gorroto zidatenengandik,
ni baino indartsuago baitziren.

Adoretsu nago, ene Jainko, adoretsu nago:
kantatu eta soinua joko dizut.

Herrien artean goretsiko zaitut, Jauna,
nazioen artean kantatuko.

Zure maitasuna zeru zabala baino handiagoa baita,
zure leialtasuna hodeietarainokoa.

Altxa zaitetz, ene Jainko, zeruaren gainetik,
eta zure ospea mundu osoaren gainetik.

Gutuneko azken hitzak

Mugatua naiz, eta mugatu izate horretatik neure mugatasuna baino gehiago naiz.
Jainkoari esker, neure edozein murriztapen baino gehiago naiz.

2012ko urtarrileko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate urtarrileko erreferentzia guztiak:

1 Lk 2,16-21	8 Mt 2,1-12	15 Jn 1,35-42	22 Mk 1,14-20	29 Mk 1,21-28
2 Jn 1,19-28	9 Mk 1,7-11	16 Mk 2,18-22	23 Mk 3,22-30	30 Mk 5,1-20
3 Jn 1,29-34	10 Mk 1,21-28	17 Mk 2,23-28	24 Mk 3,31-35	31 Mk 5,21-43
4 Jn 1,35-42	11 Mk 1,29-39	18 Mk 3,1-6	25 Mk 16,15-18	
5 Jn 1,43-51	12 Mk 1,40-45	19 Mk 3,7-12	26 Lk 10,1-9	
6 Mk 1,7-11	13 Mk 2,1-12	20 Mk 3,13-19	27 Mk 4,26-34	
7 Jn 2,1-12	14 Mk 2,13-17	21 Mk 3,20-21	28 Mk 4,35-41	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko abendua. 2. printzipioa: eguneroko bizitza,

barnerantz: apaltasuna

38. zenbakia

Sareko bigarren printzipioan, “Eguneroko bizitza, barnerantz”, apaltasunez bizitzeko gonbitea egiten zaigu. Beharrezko jarrera da horixe, Jaunari gurekiko errukia eskatzeko.

Kyrie eléison

Gure bizitzako egoeretan maiz aurkitzen gara mugatasunarekin, gu geuron edo inguruko ezinarekin, gizarte osoarenarekin, Elizarenarekin...

Zeintzuk dira zure bizitzako une honetan ezinezko egoera horiek? Zeintzuk dira munduan edo Elizan ikusten dituzun mugatasunak eta anbiguotasunak?

Galdera horiei erantzuteko, hil honetan Kyrie eleison-az gogoeta egitea eskaintzen zaigu. Bi hitz horiek grekoz zera esaten digute: “Erruki zaitez Jauna”, “izan gupida gutaz”.

Zeintzuk dira errukia eskatzeko ditudan zailtasunak? Eskean jarduteko apala izan behar da, ezin eta mugatasun horien aurrean jartzeko gai izan, geurez ezin dugula ezer egin kontuan hartu eta bestearen eskuetan jarri geure burua.

Nirekin errukitsu izateko eskatzen badiot Jaunari, zer jarrera hartzen dut besteen aurrean errukia eskatzen didatenean?

Jainkoa Maitasun errukitsu eta leiala da. Utzi egingo diogu besarka gaitzan, eta eskatuko diogu erakuts diezagula errukitsu izaten eta besteen alde nekeak eramaten.

Kanaandar emakumea

Testu honetako hitz batzuk utz gaitzakete harri eta zur beren gogortasunagatik, eta pentsa dezakegu ezin dela inor horrela tratatu. Baina zer esan nahi ote digu Jesusek testu horren bidez?

Kontakizuna, premia-egoera batekin eta Jesusi zuzenduriko eskearekin hasten da. Badirudi Jesusek ez dituela oihi haiek entzuten eta ikasleak izan behar dute emakumeaz arduratzeko eskatzen diotenak. Baina Jesus Israelgo ardi galduetara etorri da, eta emakumea kanaandarra da.

Entzun du Jesusi buruz hitz egiten, eta Hark kasu egiteko aukeratuen artean ez badago ere, bera arren eta arren ari da.

Emakumeak sinesten du Jesusengan, eta espero du kasu egingo diola bere eskariari. Nahiz eta jakin ez daukala inolako eskubiderik, mahaitik erortzen diren ogi papurrekin konformatzen da, txakurtxoak bezala.

Jesuentzat beragan fedea izateak du garrantzia, eta emakume honengan aurkitu du konfiantza oso hori beragan, bere alabaren egoeraren aurrean duen ezinetik dator kion konfiantza.

Jesusek nahi duena betez erantzuten dio, eta guri esaten digu, berarentzat ez daudela bi mundu, juduena eta jentilena, baizik eta denok gaudela bere ezteietara gonbidatuak.

Hil honetan testuaren bidez egingo dugu otoitz, Jaunari eskatuz egin gaitzala apal, geure burua erruki eta gupidaren beharrenean ikus dezagun.

Otoitzaren beste une batean otoitz egingo diogu, orobat, libra gaitzala egoismoaren deabrutik, lagun gaitzala gure ingurura begiratzen eta ez geure buruari bakarrik.

Frantziskotar espiritualitatea

Frantzisko doneak, Jainkoarekin izan zuen harremanezko bizitzaz eta esperientziaz, laguntza ematen digu Jauna aurkitzeko, ezagutzeko, maitatzeko, zerbitzatzeko eta goresteko.

Beharrezkoa dugu Jaunarekin harremanean jartzea, harekin eta harengandik bizitzea, horrela haren txera eta gupidaren aurkitzeko. Izan dadila guretzat zerbitzatzera, ez zerbitzatu izatera, etorri zen Jauna.

Gutako bakoitzak ere geure burua eman behar diogu Jaunari, eta zerbitzari izan besteentzat.

Une honetan non zerbitzatzea eskatzen dit Jaunak?

Erabil ditzagun testu hauek Jaunaren nahira jartzeko, hura zerbitzatzeko, gurtzeko eta goresteko.

“Zure hegalean itzalpean itxarongo dut”

Frantzisko donearen salmo honek laguntza emango digu otoitzean. Egin ditzagun geureak haren hitzak eta jar gaitzean haren nahira, jakinik Jainkoak bere hegalek errukitsuez gordetzen gaituela.

Tinko egongo da gure bihotza, Jainkoa baldin bada gure harkaitza eta hari errukia eta gupida eskatu ahal badiogu.